

Presentacion Urtasun
Auritz, Nafarroa (1880)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 33 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: hegoaldeko goi-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.238

Zintak

AUR-002

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-09-01
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Orreagatik Garraldara bitartean

- **Erref:** AUR-002/001
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:02

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>Auritz inguruko herrien eta oihanen berri ematen digu ibilbide bat oinarri duela. Honako aipamen hauek egiten ditu hainbat azalpen emanez: Orreagatik Auritz eta Aurizberrirako bidea, bertako lur emankorrak, Erro ugaldera (ibaira) doazen urak, Berragu oihaneko leizeak, Garraldako etxeak...</p>

Transkripzioa

Orreaga dago oianez inguraturik, lbañeta deitzen den mendi baten pean. Orreatik Auritz eta Aurizberri aldera goazilaik ikusten da zelai eder bat, zeintan egoten dire bei, beor, auntz eta ardiak belar goxo ura jaten. Iruskia atra eta bereala sartzen dire zelai ontaik oianera. Erran tugun iru erri oiek arras onak dire udako, zerengatik eztu berotzen bertze leku zenbaitetan bezala, baña neguan zenbait urtez, iten du elur anitz eta izotz gogorrak egoten baitire iru edo lau ilabetez lurra ezin ikusiz.

Aurizberrin diren ur guziak sartzen dire zilo batzurretan andik, errateuntenez atratzen dire Erroko ugaldera. Erri onen ondoan bada oian bat deitzen baita Berragu. Leku ontan badire leze itsusgarriak, oetan erortzen dena ezta nolana atrako. Leze oietaik bat deitzen da Leze motz, baña ezta deitzen den bezala, da fiarki luzea. Arri bat botatzen delaik, zolara joan orduko pasten da denbora anitz. Erri oetan nola baitire etxeak olez estaliak, anitz aldiz su lotu izan da, eta jangoikoak daki zenbat etxe erre izan diren; Garraldan bakarrik erre zire, orai duela amabortz urte iruetan ogei etxe pastuik; orai teilaz estaltzen tuzte etxeak, eta olaxen eztire erretzen lenago bezanbat etxe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com